

2. GAIA. IKUSKARITZAKO ARAU TEKNIKOAK ZEREGINAK / EBAZPENAK

2.1. NIA BILAKETAK EGIN

2.1.1. IFAC eta ICAC-en Web orrietan NIA-k bilatu

IFAC / International Auditing and Assurance Standards Board (IAASB)

Esteka: <https://www.iaasb.org/>

2018 Handbook of International Quality Control, Auditing, Review, Other Assurance, and Related Services Pronouncements

ICAC / Normas Técnicas de Auditoría

Esteka: <http://www.icac.gob.es/normativas/nacionales>

2.1.2. Zertarako zehazten du auditoreak garrantzi erlatiboa edo materialtasuna?

Irakurri, NIA-ES 320. *Importancia relativa o materialidad en la planificación y ejecución de la Auditoría.*

ERANTZUNA: Huts egite esanguratsuen arriskua ebaluatzeko, ikuskaritzako proba motak erabakitzeke eta baita noiz eta zenbat proba egingo diren zehazteko.

2.2. INDEPENDENTZIA BERMATZEKO MEHATXU-BABES SISTEMA

Auditorearen independentzia arriskuan jarri dezakeen ondorengo kasu hipotetikoaren aurrean babes sistema proposatu.

Egoera: Bodegas KATXISSS enpresak auditoretza lanak egiteko kontratatu zaitu.

Independentziaren aitortza idatzia sinatu duzu lanean hasi aurretik.

Auditoretza lana behar bezala egin da, nabaritasun egokia eta nahikoa lortu da eta aldeko iritzia eman da.

KATXISSS enpresako gerentea oso gustura gelditu da egin duzun lanarekin eta bi opari egin dizkizu:

- Bere markako 3 ardo botila.
- Aste bukaera bat lantaldeko kide guztientzat eta euren bikoteentzat bere bodegako hotelean (4 izar ditu).

ERANTZUNA: Bezero baten oparien aurrean, benetan baliorik gabekoak izan ezean, ez dago babes sistemarik; ondorioz, opariak **ezin dira onartu**.